

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Onartu dute aurtengo lehen hiruhilekoko uholdeetan kaltetutako ibai-lubetak konpontzeko laguntzen deialdia

Diru-laguntzak tokiko erakunde eta ureztatzaile-elkarteentzat dira, egindako inbertsioen %100 ordaintzeko

Viernes, 09 de agosto de 2013

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak toki erakundeek eta ureztatzaile-elkarteek ibaietako babes-lubetak konpontzeko egindako gastuak ordaintzeko laguntza berezien deialdia onartu du; izan ere, aurtengo lehen hiruhileko euriteek eragindako uholdeen ondorioz lubetak kaltetu egin ziren.



Urtarrileko uholdeak Funesen.

Laguntzak inbertsio osoa ordaintzeko izango dira, eta deialdia datorren astean argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO). Laguntzak eskatzeko epea deialdia NAO-n argitaratu eta 15 egun naturalera amaituko da.

Zehazki, Ebro, Aragoi, Arga eta Ega ibaien arroak kaltetu ziren, batik bat udalerrri hauetan: Arguedas, Buñuel, Cabanillas, Cadreita, Cortes, Fustiñana, Milagro eta Ribaforada.

Laguntzen jatorria

Nafarroako Gobernuak, bere garaian, hainbat bilera egin zituen Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, kaltetutako lubetak erakunde horrek konpontzea adoste aldera.

Akordioa atzeratu egin zen, ordea, Konfederazioak aurrekonturik ez zuelako, eta, ondorioz, Nafarroako Gobernuak kaltetutako udalerrietako udal eta ureztatzaile-elkarteei eskatu zien beharrezko konponketa guztiak egitea, kalte gehiago ez sortzeko, trukean gastuen %50 ordaintzeko konpromisoarekin.

Azkenik, Nekazaritza Ministerioarekin zenbait gestio egin ondoren, Konfederazioak onartu zuen Ebro ibaiaren Aragoiko eta Nafarroako arroetako kalteak konpontzea, baina adierazi zuen konpondutako lubeten gastuak ez zituela ordainduko. Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuak iritzi zion erakunde guztiek tratu bera jaso behar zutela eta, horregatik, erabaki zuen uholdeek kaltetutako lubetak konpontzeko egindako lanen

gastu guztia ordaintzea. Bukatzeko, esan beharra dago lan horiek erabakigarriak izan direla ekainean izandako uholdeek kalte gehiago ez eragiteko.